

JON ARRETXE

# ESTOLDA JOLASAK



erein

# ESTOLDA JOLASAK

17

---

uzta gorria

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.conlicencia.com](http://www.conlicencia.com); 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

*1. argitalpena: 2015eko azaroan*

Saila eta azalaren diseinua:

Cristina Fernández

Maketazioa:

Erein

© Jon Arretxe

© EREIN. Donostia 2015

ISBN: 978-84-9109-045-8

L. G.: SS-1390/2015

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: [erein@erein.com](mailto:erein@erein.com)

[www.erein.com](http://www.erein.com)

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: [itxaropena@itxaropena.net](mailto:itxaropena@itxaropena.net)

[www.itxaropena.net](http://www.itxaropena.net)

JON ARRETXE

ESTOLDA  
JOLASAK

erein

# I ALOU



## 1

Nazarenoaren pausoa *El Eden* klubaren parera iristean gelditu egin da eta Jesukristo astunaren garraiolariak atsedean hartu dute. Gaueko ilunpeek babestuta, prostituta batzuek tentuz aterata dauzkate euren buruak eraikinaren leiho erdi irekietatik, Gorte kalea zeharkatzen ari den desfile amaigabea hobeto ikusteko. Kofradiakide pila dago, denak puntadun txanoak buruan, aurpegiak estalita, kapa beltz, more edo zuria soinean, haietariko asko tronpeta edo danbor zaratastuz horniturik, beste asko kandelak eskuan, edo kofradiaren zutoihalak, edo gurutze erraldoiak... Batzuk oinutsik doaz, beste batzuk kateaturik, denak penitentzia-plantak eginez euren janzkeren sekretupean.

Auzoko kamera finkoen kontrolatzaileak zalantza izan du horrelako ikuskizun baten logikaz hemen, hiriko ipurtzuloan, giza zabortegei honetan, eta bere buruari galdetu dio zer pentsatzen ote duten leihoko puta atzerritarrek prozesioaz; ailegatu berriak badira ziur harriturik daudela Palanka aldean halako jendetza ikusteaz. Edonola ere, bistan da ez dutela nahi kalekoek eurei erreparatzea ze, bat-batean, foku batek klubaren aurrealdea argitu duenean, leihoak itxi eta balkoiko gizoni utzi diete protagonismoa. Hiru dira, denak agure saetazale andaluziarrak. Lehen Palankako prostitutek eurek kantatzen zituzten saetak Aste Santuko prozesioan, baina puta nazionalak desagertzen joan dira, orain gehienak urrunekoak dira eta erlijio-arekiko grina ez da haien ezaugarri nagusietako bat.

Balkoiko gizon zaharrenak ekin dio kantuari: *“¿Quién me presta una escalera para subir al madero, para quitarle los clavos a Jesús el Nazareno...?”*

Sentimendu guztiaz dihardu, balkoipeko Jesukristoari hunkiduraz begira beste kolegetako batek loreak botatzen dituen bitartean. Baina alferrik ari da, ia ez zaio batere entzuten, kofradia gehienetako kideek euren instrumentuez zarata itzela egiten jarraitzen dute-eta, mikrofonoa gorabehera.

Luzea da desfilea eta buruan daudenak, Gorteakalea osatu ondoren, bueltan datoz San Frantzisko

kale paralelotik, ikusle kosmopoliten begiradapean. Bilbo Zuritik etorritakoak dira gehienak espaloi be-  
teetan, hiriko auzo arbuiatuena urtean behin baino za-  
paltzen ez duten ustezko fededunak. Afrika Txikiko  
eguneroko biztanleek, ostera, arduragabekieriaz hartu  
dute prozesioa. Banaka batzuei baino ez zaie interesa-  
tzen gaurko parafernalia: jende pilaketa aprobeztatuz  
zer edo zer harrapatzeko esperantza daukatenei. Ho-  
riexek dira kameraren zaindariaren jomuga, pikutara  
saetazaleak, mozorrodunak eta ikusleak. Berak yonki,  
mairu eta gainerako lapur eta pertsonaia arriskutsuak  
kontrolatu behar ditu gaur.

Zeregin horretan ari dela, aspaldiko ezagun bate-  
kin egin du topo manipulatzeko duen kameraren ob-  
jektiboak. Belzkote bat da, San Frantziskoko biztanlea  
izan arren denbora luzea daramana auzoan agertu ba-  
rik: Mahamoud Toure. Primeran ezagutzen du kon-  
trolatzaileak burkinafasoarra, ez du inoiz estimuan  
eduki, baina ia errukitu egin da haren itxurari errepa-  
ratzean. Izan ere, lehengo duintasuna erabat galdua  
dauka, zarpail jantzita dago, zikin, arlote etxebakoa  
dela pentsa liteke. Kamera fokatu du haren aurpegi-  
rantz eta ez dio ohiko begitartea ikusi. Mozkorturik  
doala dirudi, edo drogatuta, edo burua galdua. Ez li-  
tzateke harritzekoa izango, alabari gertatu zitzaiona  
kontuan hartuta: bortxatu eta hil egin zuten nigeriar

mafiako kide batzuek, baita haren ume jaio berria bahitu, zatikatu eta organo trafikorako saldu ere. Zaindariari bere alaba etorri zaio gogora, adin ber-tsukoa, hamazortzi urtekoa, eta agian Tourerekin el-kartasun-sentimendu gutxieneko bat izan beharko lukeela pentsatu du, gupida pixka bat sumatu sike-ran... baina ez dauka halako sentipenik. Azken baten, haren alaba puta bat baino ez zen, Afrikatik uholdeka etortzen diren beste puta nazkante horietariko bat.

Toure, nahiz eta San Frantziskoko afrikar ezjaki-nen artean itzal apur bat lortu bere ustezko igarle-gai-tasunagatik, txotxongilo gixajo hutsa bilakatua zen kontrolatzailearen moduko polizientzat. Ertzainek zein udaltzainek euren apeten arabera erabiltzen zuten eta, paperik ezaz baliatuz, euren salatari bihurtzeko estu-tzen ari ziren. Alabaren zoritxarraren ondoren auzotik desagertu egin zen eta poliziak, aldi batez, behintzat, berataz ahaztu ziren. Baina hemen da berriz ere. Ez di-rudi sasi-igarleak ezer onik egiteko asmoa daukanik, eta haren portaera aztertzeari lotu zaio zaindaria.

San Frantzisko kaleko espaloi estuan behera abiatu da Toure, prozesio-buruko lehen txanodun multzoa-rekin gurutzatu den arte. Hortxe gelditu da, bere gor-putzarra jendartean nabaritzen dela. Fededunek arreta guztia daukate prozesioan, eta kameran zaindariaik susmoa izan du burkinarra haiei osten saiaturiko ote



den. Haren eskuak fokatu ditu eta sakeletatik atera dituenan ondoko andrearen poltsan sartuko dituela pentsatu du. Baina ez, afrikarrak eskuin eskua gerri aldera eraman du, eta aizto handi bat atera du arropen azpitik. “Zer arraio...!” bat atera zaio kontrolatzaileari eta atoan deitu die kaleko kontrol-postuetan dauden kolegei. Beranduegi, ordea. Toure inguruko fededunen artetik irten eta errepidea pauso finkoz zeharkatzen hasi da, kofradiakideen artean izua eraginez. Ez dira hauek bere jomuga, baina ikaratu egin ditu, gainerako ikusleak bezalaxe. Oihuak hasi dira eta panikoa nagusitu da segundo gutxitan, bultzadak, estropezuak eta erorketak eraginez. Penitenteak saihestu ditu nola edo hala erasotzaileak, eta beste horrenbeste egin behar izan du beste espaloiko ikusle asaldatuekin, lokutorio baten sarrerara heldu den arte. Han dauden gizon beltzetako bat zeukan begiz jota, eta berarentzat izan da lehenengo aiztokada. Bularrean jo dio, baina burdinaren punta, saihetsezurren batekin topo eginda, ez da haragian gehiegi barruratu eta, lurrera jausi aurretik, errebotearen eraginez zauria eragin dio erasotzaileari eskuan.

Kontrolatzailea harri eta zur dago, ez baitzuen imajinatzen Toure baketsua halako zerbait egiteko gauza izan zitekeenik. Burkinafasoarra, eskua odoletan, makurtu eta aiztoa berreskuratu du lurreko txano eta

kandelen artetik, eta biktimak ihesari eman dio. Kofradiakide eta ikusleei iskintxo eginez handik urrun-  
tzen saiatu da, baina jende gehiegi dago gaur Afrika  
Txikian eta ez da erraza izango. Bien bitartean instru-  
mentista batzuek jotzeari utzi diote eta oihuek orde-  
katu dute haien musika. Beste kofradietako kideek, os-  
tera, ekinean jarraitzen dute, gertatzen denaz ezjakitun.  
Gauza bera esan daiteke *El Edengoei* buruz, agure sae-  
tazaleek hunkiduraz betetako kantuekin segitzen dute,  
eta prostituta batzuk, lotsa galdua, alboko leihoetatik  
sakelako telefonoaz grabatzen hasi dira ikuskizuna,  
balloikoa nahiz kalekoa. Eta kalekoak ere euren sake-  
lakoez betiketzen ari dira eszenak, balloikoak nahiz  
leihoetako prostitutenak.

Kontrolatzaileak zera pentsatu du, kaleko poliziaiei  
abisua bizkor pasatu arren, biktimarenak egin duela.  
Izan ere, Toure arin hurbildu zaio, arma eskuan, eta  
beste aitzokada bi eman dizkio. Ez du, halere, bete-be-  
tean asmatu; lehen kolpeak iheslariaren besoa baino ez  
du harrapatu, eta bigarrena erdizka sartu zaio gerrian.  
Biktimak, desesperantzaren indarrak, gurutzea dara-  
man kofradiakide bat besarkatu du, kapa zuriko gizon  
oinuts eta kateatu bat, txanoa galdua daukana. Hau,  
bere arropak zelan gorritzen diren ikusiz, gurutzeaz  
kolpeak emanez askatzen saiatu da besarkatu duen  
afrikarrak, baina ez du lortu eta izaturik ikusi dute biek

armadun zoroa eurengana hurbiltzen. Tourek gurutzeduna bultzakada batez aldendu, biktimari paparretik oratu eta berriz jaso du aiztoa, kolpe erabakigarria jotzeko prest. Baina une horretan bi ertzain ailegatu, burkinarra lurrera bota eta desarmatu egin dute.

## 2

Horia dela zoroen kolorea diote. Ez dakit egia den, baina CIE zeritzon horma horixkako eraikin triste haren barruan denbora luzea emanaz gero, burutik amaituko zuten askok. Han giltzapeturik zeudenen aurpegiari erreparatu besterik ez zegoen: etsipena sumatzen zitzaien, nekea, unadura, amorru apaldua, nahasmena, atzerritarrentzako kartzela moduko hartara eramateko arrazioak ulertu ezina... Neure musuari ere erreparatu nion ispiluan, eta nitaz antzeko zerbaite pentsatuko zutela jabetu nintzen.

Alaba eta haren haurtxoaren hilketek erabateko etsipenean murgildu ninduten, bizirik jarraitzeko gogo kendu zitzaidan eta neure buruaz beste egitear ere egon nintzen, nire gorputza heroinaz bete ondoren Nerbioiko uretara salto eginda. Baina koldarregia izan nintzen pauso hori emateko eta ibaira bota nuen gauza

bakarra behin eta berriz jotzen zuen sakelako telefonoa izan zen. Gehien estimatzen ninduten pertsonen ize-nak agertzen ziren pantailatxoan etenik gabe: Osman nire gelakide maliarra, Kristina nire amorante zuria, Xihab nire kolega marokoarra... Baina ez neukan gogorik inor ikusteko, inorekin hitz egiteko eta, nire bizilekua izandako San Frantziskotik alde eginda bakardadea bilatu nuen Bilboko beste paraje baztertu batzuetan. Bolada luzea eman nuen Afrika Txikiko lagunez ahaztuta, egunak noraezean ematen nituela, gauak nire moduko atzerritar edo arloteez inguraturik edozein zulotan pasatzen nituela: Abusuko zubi erraldoiaren azpian, Zorrotzaurreko txaboletan, Basurtuko pabilioi abandonatuetan...

Ausardia handia behar da nork bere buruaz beste egiteko, baina askoz errazagoa da nork bere burua hiltzen uztea pixkanaka, eta, agian, horixe zen nire subkontzientearen helburua. Edonola, bizirik iraun nuen aldi etsigarri horretan, txiroenen arteko elkartasunari esker iraun ere.

Gau baten sarekada egin zuen poliziak atsedentoki nuen lantegi zaharrean eta ozta-ozta lortu nuen ihes egitea. Gertaera haren ondorioz berriz San Frantziskorantz hurbiltzen joan nintzen pixkanaka. Gau batzuk Bailengo geltokiko tren abandonatuetan eman nituen, afrikar etxegabez inguraturik, eta han nire

utzikeria uxatu eta amorrua berpiztu zidan informazioa jaso nuen. Nire alabaren hilketan zerikusi zuzena izan zuen pertsona baten berri eman zidaten. Gizon nigeriar bat zen, Paristik etorria zena Bilbon lanean ari ziren prostituta afrikarren egoera aztertzeko, euren mafiak antolatutako sareak kontrolpean jarraitzen zuela egiaztatzeko. Haren deskripzioa eman zidaten, denbora gehiena ematen zuen lokutorioaren helbidea ere bai, eta, aizto bat lortu ondoren, harantz abiatu nintzen, mendeku egarriz.

Baina ez nintzen gai izan lan hura ondo burutzeko, erdizka geratu zen zeregina, eta ondorioa poliziek atxilotu eta Madrilgo CIEra bidaltzea izan zen. Berriak aitortu zidatenez, hilketa-ahalegina beste norbaiten kontrakoa izan balitz, zuri baten kontra, esaterako, zuzen joango nintzen kartzelara, baina nire antzeko “zabor” bati eraso nionez, ni ahalik eta urruenen bidaltzearekin konformatu ziren.

Ez zen lehenengo aldia atzerritar ilegalentzako zentrorra eramaten nindutena, lehenagoko baten ere egonaldia egin nuen han. Orduko hartan zorionekoa izan nintzen eta, Bilboko lagunaren ekimenari esker, libratu egin nintzen atzerriratetik. Kristina saiatu zen gehien, nire adiskide ilegorri miresgarria. Osman beteranoa ere egon zen tartean eta, Xihab tabernariaren laguntzaz, Afrika Txikiko beste hainbat lagun mobilizatu zuen;

eta Bilbo Zuriko pertsona boteretsu batzuen errukia ere merezi izan nuen. Bigarren aldian, ostera, egoera desberdina zen, aberaskumeak nitaz guztiz ahaztuta zeuden eta nire benetako lagunek ideiarik ere ez zeukaten non nengoen.

CIE n denok genekien zozketa baten barruan sartuta geundela, berdin-berdin gerta zitekeela gure herrialdeetara botatzea zein aske uztea, erabakitzeko gaitasuna zeukatenean apeten arabera. Dena den, nire patua oso iluna zen, neure azala bezain iluna. Abisatuta nengoen, San Frantziskoko polizientzat satorrarena egiteko prest ez banengoen, ez nindutela ezertarako behar eta Afrikara bota ahal nindutela bueltako billeteirik gabe. Primerako aitzakia eskaini nien, gainera, nire hilketa-saio narrasarekin.

CIE berez leku eskasa bazen, niri suertatu zitzaidan bolada bereziki txarra izan zen. Neure burutazio ezkorrek eragiten zidaten ondoezaz gain, ebola gogor jotzen ari zen Afrikan, han itxita geunden gehienak afrikarrak ginen, eta kontrolatzen gintuzten polizien begirada urdurietan nabaria zen gure beldur zirela. Maskarak ahoan jarrita ibiltzen ziren, geletan itxita edukitzen gintuzten ia egun osoan, ezer jan edo edan barik, komunera joateko ere aukerarik eman gabe, haietariko batengana hurbilduz gero histeriko paratu eta mehatxuka urrunarazten gintuen...

Lehen mundura ailegatu nintzenetik sarritan sumatu nuen mespretxuaren pisua, baina Madrilgo egonaldi hartan maila jasangaitzera iritsi zen. Legenardun kutsagarriak bezala tratatzeaz gainera, pertsonak ere ez ginen, izenik ere ez geneukan eta zenbaki batez izendatzen gintuzten. Hura gehiegizkoa zen, behingoz amaitzea nahi nuen, eta ez nuen gehiegi itxaron beharrik izan.

Egunsenti baten, leihoko burdin barren artetik kanpoko hesi, horma eta alanbradei begira ari nintzela, norbaiten urratsak aditu nituen hainbat lagunek partekatzen genuen gelarantz hurbiltzen. Atea ireki zen eta gizonezko sendo bi agertu ziren, batek maskara ahotik kendu eta zenbaki bat esan zuen. Neuri zegokidana zen. Gizonak errepikatu egin zuen, ozenago, eta aterantz hurbildu nintzen.

### 3

Hegaldian zaindu gintuzten polizia espainiarrek etorkin multzo bati jaisteko agindua eman zigutenean nahasturik sentitu nintzen. Bamakoko aireportuan geunden eta ea ni ez ninduten Uagadugura eramane behar itaundu nien.

–Uaga zer? –bota zidan polizietako batek, bur-lazko irribarrez–. Nahi baduzu, jet pribatua ipiniko dizugu. –Segituan bromak alde batera utzi eta keinua seriotu zuen–. Nahikoa gastu izan zarete guretzat eta hemendik aurrera hor konpon!

Ez nuen astirik galdu alferreko protestekin eta hegazkinetik jaitsi nintzen beste hainbat atzerriraturekin. Triste zihoazen denak, lotsaz, porrot sentimenaz. Nor bere etxera burumakur itzuli eta azalpenak eman beharko zituen amets europarretik esku hutsik bueltatzearen arrazoiez, senide eta lagunak diruak eta esperantzak alferrik galdu izanaren zergatiaz.

Nik ez neukan batere garbi zer egin behar nuen neure bizitzarekin. Zera bururatu zitzaidan, agian mesede izan zela, Burkina Fasoraino eramane beharrean, Maliko hiriburuan uztea. Izan ere, ez nengoen prestatuta nire emazteari, begietara so, alabarekin gertatutakoa azaltzeko, geratzen zitzaizkidan seme-alabei euren aitaren porrotaren berri emateko...

Onerako edo txarrerako, Bamakon botata suertatu nintzen eta, ezer baino lehen, han senideren bat ba ote neukan pentsatzeari eman nion, ezagunen bat sikeran... Pertsona bakarra etorri zitzaidan burura, haren telefono-zenbakia gogoan neukan eta, nire bidaideen artean laguntza eskatuta, batek sakelakoa uztea lortu nuen, dei labur bat egiteko Bilboko Afrika Txikira.



Osman nire pisukide ohiaren zenbakia markatu eta, seinalea aditu bitartean, errudun sentimendua jabetu zen nitaz.

–Nor da? –esan zuen, halako baten, maliar bete-ranoak.

–Neu naiz –erantzun nion–, Toure.

–Toure! –Hasierako ustekabearen ondoren tro-pelka atera zitzaizkion hitzak–. Non sartu zara? Maliko zenbaki batetik deitzen didazu, ezta? Zer arraio...?

–Poliziek harrapatu eta atzerriratu egin naute –eten nuen.

–Ez naiz harritzen, enteratu gara zer egin zenuen lehengoan, prozesioaren egunean. –Errieta kutsua zeu-katen haren hitzek, eta kutsu hura handitu egin zen hurrengo esaldietan–. Dena dela, horren aurretik nola liteke hainbeste denbora pasatzea zeure berri eman gabe? Ez genekien ezta bizirik ote zeunden ere. Pen-tsatu genuen...

Osman bat-batean isildu eta segundo batzuk eman zituen horrela. Berriz sartzeko aprobe txatu nuen.

–Arrazoi duzu, lagun, badakit ez dudala zuzen jokatu, baina orain ezin naiz luzatu. Azalduko dizki-zut xehetasunak beste momentu baten, baina orain mesede bat behar dut. Bamakon nago, ez daukat nora joan eta bururatu zait agian zuk ezagunen bat eduki dezakezula hemen.

–Bai, jakina –zizpuru egin zuen Bilboko egonaldian adiskide, babesle eta aholkulari izan nuen gizon jakintsuak, eta azalpen asko zor nizkiola konturatu nintzen–. Tira, hitz egingo dugu horretaz. Nire familia hiriburutik urrun bizi da, baina hor badituz lagun bat edo beste. Badaukazu zerekin apuntatzeko?

#### 4

Bamakoko BUMDAra ailegatu nintzenean –egile-eskubideen babeserako bulegora–, ez zen beharrik egon nire kontaktuaz galdetzeko. Izan ere, gizon irribarretsu bat zain neukan solairu bakarreko erakin luzearen aurreko zabaldi asfaltatu gabea. Bisera zerman, baita betaurreko ilunak eta mauka luzeko alkandora ere.

–Toure zara, ezta? –esan zidan, geratzen zitzaion esku bakarra, eskuina, eskaintzeaz batera.

Nire pisukide ohiak ez ninduen abisatu zelako itxura zeukan bere Bamakoko lagunak eta, disimulatu saiatu banintzen ere, uste dut igarri zitzaidala harridura.

–Bai –erantzun nion–, eta zuk Alou izan behar duzu.